

Heriotzek % 7,7 egin zuten gora 2020ko lehen hiruhilekoan, nagusiki COVID-19agatik

COVID-19aren ondoriozko heriotzen % 90 70 urtetik gorako adinekoetan gertatu ziren

2020ko lehen hiruhilekoan, Euskadiko AEn 6.475 heriotza izan ziren, aurreko urteko aldi berean baino % 7,7 gehiago, Eustaten datuen arabera.

Hiru lurraldeetan heriotzek gora egin zuten, eta bereziki esanguratsua izan zen Araban izan zen gorakada, % 33,8 bertakoa izan baitzen, 962 pertsona. Bizkaian, heriotzek % 5,5 egin zuten gora (3.549 hildako), eta, Gipuzkoan, % 1,9 (1.964 hildako). Sexuaren arabera, 3.216 gizon eta 3.259 emakume hil ziren; alegia, % 7 egin zuen gora heriotzak gizonetan eta % 8,4, emakumeetan.

Lehen hiruhileko horretan izan diren heriotzen artean, 13 urtebetetik beherakoak izan ziren eta 77, ehun urtetik gorakoak.

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren; 1.662 eta 1.501 heriotza, hurrenez hurren. Alegia, bi horiek heriotzen % 48,9 izan ziren. Hirugarren heriotza-kausa arnas gaixotasunak izan ziren; 693 heriotza egon ziren (% 10,7). COVID-19a izan zen laugarren heriotza-kausa; 500 heriotza izan ziren.

Arnasketa-kausengatik heriotzek % 17,3 egin zuten behera aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta % 44,7 egin zuten gora, 2019ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Nerbio-sistemako gaixotasunen ondoriozko heriotzak direla eta, 394 hildako izan ziren; alegia, % 10,1 egin zuen gora aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta % 16,2, 2019ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Bestalde, gaixotasun digestiboek 247 heriotza eragin zituzten; alegia, % 5,6 egin zuten gora, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Heriotzen motiboak desberdina izaten jarraitzen du, sexuaren arabera; izan ere, gizonen artean, tumoreek gairitu egin zituzten zirkulazio-sistemako gaixotasunak, eta, emakumeen artean, kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren eta, ondoren, tumoreak. Arnasketa-sistemako gaixotasunek hirugarren heriotza-kausa izaten jarraitu zuten bi sexuetan.

Euskadiko AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen 2020ko lehen hiruhilekoan, behera egin baitzuen (2.752 pertsona gutxiago). Hiru lurraldeetan, biztanleria galdu da: Bizkaian, 1.687 pertsona; Gipuzkoan, 699, eta, Araban, 366.

COVID-19aren ondorioz 500 heriotza izan ziren 2020ko lehen hiruhilekoan; guztiak martxoan

2020ko lehen hiruhilekoan, COVID-19aren pandemia hasi zen. Pandemiak lehen heriotzak ekarri zituen martxoan, 500 guztira, 2 taldetan banatuta: 427 egiaztatutako COVID-19aren ondorioz eta 73 ustezko COVID-19aren ondorioz; gainera, beste 17 heriotzatan COVID-19a ziurtatutako heriotza-kausen artean egon zen, baina ez zen funtsezko kausa izan.

Lurraldeen arabera, zifrarik altuena Bizkaian izan zen (240), ondoren Araban (180) eta, gero, Gipuzkoan (80). Hiriburuak direla eta, Vitoria-Gasteiz nabarmendu behar da (151 heriotza COVID-19ak eraginda), gero Bilbo (77) eta, azkenik, Donostia / San Sebastián (17). Basauri ere nabarmendu beharreko udalerria da (40 heriotza).

Gizonen heriotza-kopuruak (302) % 50etik gora gairitu zuen emakumeena (198). Adinen arabera, eragin gehien jasan zuten taldeak 80-89 urte artekoena (219), 70-79 urte artekoena (112), 90-99 urte artekoena (107) eta 60-69 urte artekoena (41) izan ziren, eta, besteetan, ez zen ia heriotzarik egon edo ez zen heriotza bat ere egon.

Heriotza horiek, nagusiki, Euskadiko ospitaleetan gertatu ziren (% 79,8), eta, ondoren, egoitza soziosanitarioetan (% 10,6), etxeetan (% 7,2) eta beste leku batzuetan (% 2,4).

Heriotzak, COVID-19aren arabera, lurralde historikoari eta bizileku-udalerriari jarraiki (>40.000 biztanle)

	Guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probablea
Euskal AE	500	427	73
Araba / Álava	180	165	15
Bizkaia	240	196	44
Gipuzkoa	80	66	14
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)			
Barakaldo	18	12	6
Basauri	40	34	6
Bilbao	77	64	13
Donostia/San Sebastián	17	11	6
Getxo	14	11	3
Irun	6	6	0
Portugalete	2	2	0
Errenteria	5	4	1
Santurtzi	9	8	1
Vitoria-Gasteiz	151	143	8

Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika


Garrantzitsua da nabarmentzea 2020ko martxoan 2019ko hil beraren aldean izan den heriotzen gorakada –686 heriotza– ez dagokiela bakarrik COVID-19aren ondoriozkoei –lehen aipatu ditugun 500 hildakoak–.

Heriotzak, sexu eta heriotza-kasuaren arabera (1)

	Oraingo hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa		Aurreko urteko hiruh. bera	
	2020/I		(2019/IV)		(2019/I)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	6.475	100,0	5.520	100,0	6.011	100,0
Araba / Álava	962	14,9	715	13,0	719	12,0
Bizkaia	3.549	54,8	3.031	54,9	3.365	56,0
Gipuzkoa	1.964	30,3	1.774	32,1	1.927	32,1
Gizonak	3.216	49,7	2.754	49,9	3.005	50,0
<1 urte	7	0,1	3	0,1	13	0,2
1-19 urte	4	0,1	1	0,0	9	0,1
20-39 urte	32	0,5	27	0,5	23	0,4
40-59 urte	243	3,8	253	4,6	257	4,3
60-79 urte	1.123	17,3	1.017	18,4	1.047	17,4
80-99 urte	1.798	27,8	1.437	26,0	1.636	27,2
≥ 100 urte	9	0,1	16	0,3	20	0,3
Emakumeak	3.259	50,3	2.766	50,1	3.006	50,0
<1 urte	6	0,1	4	0,1	4	0,1
1-19 urte	3	0,0	5	0,1	4	0,1
20-39 urte	17	0,3	7	0,1	14	0,2
40-59 urte	147	2,3	119	2,2	132	2,2
60-79 urte	625	9,7	527	9,5	490	8,2
80-99 urte	2.393	37,0	2.038	36,9	2.284	38,0
≥ 100 urte	68	1,1	66	1,2	78	1,3
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	6.475	100	5.520	100	6.011	100
Tumoreak	1.662	25,7	1.634	29,6	1.617	26,9
Zirkulazio-aparatua	1.501	23,2	1.496	27,1	1.549	25,8
Arnas aparatua	693	10,7	479	8,7	838	13,9
Nerbio sistema	394	6,1	339	6,1	358	6,0
Txegoste-sistema	247	3,8	256	4,6	234	3,9
Gainerako kausak	1.978	30,5	1.316	23,8	1.415	23,5
GIZONAK	3.216	100	2.754	100	3.005	100
Tumoreak	999	31,1	965	35,0	968	32,2
Zirkulazio-aparatua	682	21,2	688	25,0	750	25,0
Arnas aparatua	362	11,3	271	9,8	428	14,2
Nerbio sistema	158	4,9	155	5,6	131	4,4
Txegoste-sistema	133	4,1	126	4,6	122	4,1
Gainerako kausak	882	27,4	549	19,9	606	20,2
EMAKUMEAK	3.259	100	2.766	100	3.006	100
Tumoreak	663	20,3	669	24,2	649	21,6
Zirkulazio-aparatua	819	25,1	808	29,2	799	26,6
Arnas aparatua	331	10,2	208	7,5	410	13,6
Nerbio sistema	236	7,2	184	6,7	227	7,6
Txegoste-sistema	114	3,5	130	4,7	112	3,7
Gainerako kausak	1.096	33,6	767	27,7	809	26,9

(1) Oraingo eta aurreko hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira
Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Bizilekua Euskal AEn dutenen heriotzak. Hileko datuak



Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62